

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukia

Tokiko sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, gastu eta sarrera bateratuak 13.117.569,45 eurokoak dituen, honako hauek osatuko dute:

- a) Udalaren Aurrekontua, 13.117.569,45 euroko gastu eta sarrerak dituen.
- b) Ez du organismo autonomoaren Aurrekonturik
- c) Udalaren % 50ko partaidetza duen sozietate publikoarik ez du.

2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak

2024ko ekitaldi ekonomikoan Usurbilgo Udalak abalak eman ahal izango ditu, bere aurrekontuko hasierako kredituen zenbatekoaren %5eko mugapean.

Organismo autonomoak eta sozietate publikoak ezingo diote inori abalik eman, ez eta edozein izaeratako bermerik ere.

3. artikulua.- Zorpetze muga

Udalak bere gain hartuko epe luzeko zorpetze eragiketengatik, edozein izanik ere horiek dokumentatzeko era, 2024ko abenduaren 31n gelditzen den zor bizia ezingo da eragiketa arrunten %70 baina altuagoa izan, 8.473.318,97 eurotik gorakoa, hain zuzen.

2024ko ekitaldiaren barruan tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek urtebetetik beheko zorpetze eragiketak hitzar ditzakete, Diruzaintzan sor daitezkeen unean uneko premiak finantzatzeko. Dena dela, Udalean eta organismo autonomoetan eragiketa horiek hitzartu ahal izateko, Udalbatzarrak onartu beharko ditu alde zurretik.

Diruzaintzako eragiketa horien hitzarmena eta beren amortizazioa, aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra

1.- Kredituen lotespen juridikoen mailak

Gastuetarako kredituak Aurrekontuan edota horren aldaketetan berariaz onetsi den helbururako erabili ahal izango dira soilik.

Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotespen-mailaren arabera:

Kapitulua Lotura maila

Kapituluko lotura maila izango dute:

- I.- Pertsonal gastuak
- III.- Finantza gastuak
- IX.- Finantza pasiboak

Kapitulua eta gastu arloko lotura maila izango dute:

- II.- Gastu arruntak eta zerbitzuak
- IV.- Transferentzia arruntak
- VI.- Inbertsio errealak
- VII.- Kapital transferentziak
- VIII.- Finantza aktiboak

5. artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak

Aurrekontu kredituak aldatu ahal izango dira, Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauak eta Aurrekontua Gauzatzeko Arau honek jasotzen dituzten xedapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamenarekin batera adierazi beharko da zein programa funtzionaletan izango duen eragina. Halaber, burutu beharreko ekintzetan nahiz lortu nahi diren helburuetan gertatuko diren aldaketak jaso beharko dira, horiek neurtzeko erabilitako adierazleen zenbateko eta maiztasunak ere eguneratuz, hala behar izanez gero.

Lehendakaria izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin eta kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 (655.728,47 euro) baino gutxiago bada eta ez badira finantzatzen 21/2003 Foru Arauaren 34.2 artikuluko hirugarren paragrafoan aipatutako maileguekin.

6. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidearen erregulazio arauak

1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak

Gastuen Aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastua egiteko baimena.
- b) Gastuaren erabilera.
- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.

2.- Gastuen baimena eta erabilera

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:

- a) Udalbatzarraren eskumena izango da 1.311.756,45 eurotik gorako gastuen, nahiz konpromisuzko kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera.
- b) Gobernu Batzordearen eskumena izango da 655.878,47 eta 1.311.456,95 euro arteko gastuen baimena eta erabilera.
- c) Lehendakariaren eskumena izango da 655.878,47 eurotik beherako gastuen baimena eta erabilera.

Gastuen baimenerako espedienteari alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zuritzeko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontuhartzaileak espedienteari buruzko txostena idatzi beharko du, 21/2003 Foru Arauak 65etik 74ra artikuluetan jasotakoaren arabera.

3.- Obligazioaren onarpena

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastu konpromisuetatik sortutako obligazioak.

Obligazioen onarpena oinarritzeko agiritzat kontu-hartzailearen txostena daraman faktura zerrenda har daiteke.

Aldez aurretik, zerbitzuburuak diligenzia bana egin beharko du faktura bakoitzean, alorreko ordezkariaren oniritzia daramana, honakoa jasoz:

- * Materiala, obra edota hornidura hartu izanaren adierazpena eta berarekiko adostasuna.
- * Gastu onartu duen organoa eta eguna.
- * Zein aurrekontu partidatan eta zein katebururen erreferentziapean kontabilizatu behar den.

4.- Ordainketaren agindua

Toki entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

5.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugen barne:

- * Gastuen baimena eta erabilera (AD), toki entitatean legez hartutako konpromisuetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguren interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzenez erosketak eta kontratu txikietan.
- * Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena (ADO), eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigigarritasuna bat-batekoa denean: 1.000 eurotik beherako erosketa arruntetan, dietak eta joan-etorriak, bestelako gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina ordainketak eta toki entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere. Gastu hauek fakturari partida ezarrita bideratuko dira.

Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da beti ere, erabakia hartuko duen organoak berezko eskumenak, eskuordetutakoak nahiz deskonzentratutakoak izatea ebazpenaren barruan sartzen diren fase bakoitza eta guztiak erabakitzeko.

7. artikulua.- Zuritu beharreko ordainketak

Ordainketa agindu guztiak agiri bidez justifikatzeko printzipioaren salbuespen gisa, eta hurrengo artikuluan araututako kutxa finkoko aurrerakinen zirkuitu bidez egitea ezinezkoa denean, "zuritu beharreko" izaerako ordainketa aginduak egin ahal izango dira, baldintza hauekin:

Egindako ordainketak dirutza jaso eta gehienez hiru hilabetera zuritu beharko dira.

Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritzeke fondorik ez izatea.

Alkateari dagokio baimena ematea.

8. artikulua.- Aldez aurreko gastu baimendua

Gastu arrunt errepikakor eta txikiak gauzatzeko prozesua aldez aurreko gastu baimenduen fitxak (Sareko-ko "eskariak") betez hasiko da, 5.000 euro bitartekoak direnean. Gainontzeko kontratu txikiak dagokion KTXI espedientearekin izapedetuko dira.

Aldez aurreko gastu baimendu horretan, gastu proposamen bat jasoko da:

- Departamentuko arduradunak sinatuta.
- Kontuhartzaitzak aldeko txostena eginda.
- Alkatetzak onartuta.

Proposamen horren bitartez departamentuko arduradunari baimena ematen zaio gastuak konprometitzeko alde aurreko gastu baimenduan jasotako kopuru osoraino, Kontuhartzaitza edo Alkatetzara jo gabe banan-banan kontuan hartutako gastu bakoitzerako.

Gastu horiek eragindako departamentuak arduratuko dira gastu baimendu kontsumituaren eta gainerakoen maila etengabe eguneratzeaz, eskarien balorazioaren bitartez; eta behar adinako aurrerapenez Kontuhartzaileari jakinaraziko diote alde aurreko gastu baimendu berri baten ordain agindua beharra.

9. artikulua.- Kutxa finkoko aurrerakinak

Aldizkako izaera duten edota errepikakorrak diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute. Aurrerakinak ematea nahiz itzultzea aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

Kutxa finkoko aurrerakinak honako xedeetarako eman ahal izango dira soil-soilik, eta ondorengo mugen barne:

XEDEA	ARDURADUNA	MUGA (€)
Protokolo gastuak	Alkatetza	600
Mantenimendua eta artapena	Obra eta Zerbitzuak	2.000

Kutxa finkoko aurrerakinak toki entitateko lehendakariaren dekretuz onartuko dira, alorreko ordezkariak proposatuta. Diru-hornidura automatikoki berritu daiteke aurrerakoaren likidazioa aurkeztu ondoren.

Kutxako arduradun, ordaintzaile nahiz habilitatuek jasotako dirutza Korporazioaren Kutxan kokatu beharko dituzte eta behar ahala erabili ahal izango dituzte aurreikusitako xedeetarako. Guztiz galerazita gelditzen da fondo horiek nork bere helburuetarako erabiltzea. Aurrerakinen jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korrante bat ireki ahal izango dute entitate finantzario batean Udalaren izenean, jasotako fondo bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako, beren sinadurarekin soilik erabili ahal izateko.

Aurrerakinen jasotzaileek jasotako diruaren kontrola eraman beharko dute kontu korranteen liburu baten bitartez, bertan zordunduz eta abonatuz bai sarrerak bai fakturaz zuritutako zenbatekoa.

Era berean, udal diruzainak ere liburu laguntzaile bat eraman beharko du kutxa finkoko aurrerakinak kontabilizatzeko, bertan zehaztuz jasotzaile bakoitzari emandako dirua eta zuritutako zenbatekoa.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek udal kontuhartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri, kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri emate hau aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da gehienez eta, beti ere, abenduaren 15 baino lehen..

Aurrerakinak zuritzean, dagokion aurrekontu partidari aplikatu beharko zaizkio ordainaginduak.

10. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalte-ordainak

Lehendakariak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalte-ordainen eskubidea izango dute:

a) Joan-etorriak gastuak:

- * Joan-Udal hautetsi edo langileak ibilgailu propioa erabili behar badu udal eginkizunetan, 16/1993 Dekretuan eta bere azken aldaketan aurre ikusitako gastuak ordainduko zaizkio, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.
- * Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

b) Otordu eta ostatu gastuak:

- * Egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero

Kasu guztietan, bai hautetsiek bai gainerako udal langileek egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, irteera eta itzuleraren ordua, eta egindako gestioen berri jasoaz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalte-ordainaren zenbatekoa.

11. artikulua.- Diru-laguntzak

Edozein jarduera antolatzeko Udalak emandako diru-laguntzek bat etorri beharko dute Gobernu Batzordeak, Dirulaguntzen batzorde informatiboen proposamenez, onartutako oinarriekin.

Udalaren aurrekontuaren kargura inolako diru-laguntzarik jasotzen duenak, aldez aurretik, Udalarekin bere zerga betebeharrak eginak dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, kontuhartzaileak ziurtagiri bat sinatu beharko du eta bertan jaso borondatezko epealdia bukatu ondoren zergadunak ez duela inolako zorrik ordaindu gabe.

1.- Alderdien Dirulaguntzak

Talde Politikoa	Zinegotzi Kopurua	Zinegotzi Variablea	Taldeko finkoa	Guztira
EHBILDU	9	11.880,00	4.800,00	16.680,00
EAJ	3	3.960,00	4.800,00	8.760,00
PSE	1	1.320,00	4.800,00	6.120,00
				31.560,00

2.- Udalbatzako eta Tokiko Gobernu Batzarreko bertaratzeagatik, dedikaziorik ez duten zinegotzi bakoitzari dagokion ordainsaria 50 eurotan finkatzen da eta Batzorde Informatzaileetako bilkuretara bertaratzeagatik 100 euro.

3.- Bertaratze ordainsariak ordaintzeko prozedura:

Batzorde bakoitzeko idazkariak hil bakoitzean izandako bilkuren eta bertaratutako zinegotzien erlazioa bidali beharko du kontu-hartzaitzara hurrengo hilaren 3rako gehienez, eta horien arabera ordainketak 10ean egingo dira.

12. artikulua.- Ikastaroak

Ikastaroetan parte hartzeko honako arauak bete beharko dira:

- a) Baimenaren proposamena alorreko arduradunak sinatuko du, toki entitateko lehendakariaren oniritziarekin, besteak beste honako datuak jasoz:
 - * Ikastarora doanaren datuak. izen-abizenak, lanpostua, e.a.
 - * Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
 - * Orduetgia.
 - * Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.
- b) Toki entitateko lehendakariak ebatziko du baimen proposamenari buruz, aurrez kontuhartzaileak aurrekontu krediturik badagoenentz eginiko txostena ikusita.
- c) Ebazpena ikusita, diruzainak "zuritu beharreko ordainketen" izaera izango duen diru-hornidura egingo du.

13. artikulua.- Kredituak aurrerapenez txertatzea

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiok batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

- Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 32.1 artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean egotea.
- Zerbitzuburuaren txostenaren bitartez kreditua aurrerapenez txertatzeko beharra frogatzea.

- Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, salbu dirusarrera helburudunen bitartez finantzatutako kapital eragiketak badira.

Txertaketa aurreratua ekainaren 30 baino lehen egin behar da beti.

Kredituen txertaketa aurreratua gauzatu da baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoek Kontuhartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.

14. artikulua.- Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa

Talde Politikoei hiru hilean behin emango zaie Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa, programa eta kapituluaren arabera eta Ordaintzeko batezbesteko Epearen informazioa.

15. artikulua.- Urte bukaera: fakturen eta obra-ziurtagirien izapidetza.

Itxiera prozedurari begira, ekitaldiko fakturak edo ziurtapenak Udaleko erregistro orokorrean urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira. Egun hori laneguna ez bada, hurrengo laneguna izango da azken eguna.

Dagokion sailean adostu ondoren, Kontu- hartzaitzara bidali behar dira, urtarrilaren 20 baino lehen.

16. artikulua.- Aurrekontu antolaketa: Departamentu arduradunak.

SAILKAPEN ORGANIKOA

Arduradunak: Politikoa / Teknikoa

10 Antolakuntza	Olatz De Miguel
11 Gobernu-taldea.....	Olatz De Miguel
12 Idazkaritza.....	Xabin Juaristi
13 Komunikazioa.....	Maialen Unanue
14 Informatika.....	Ainhoa Leunda
20 Ogasuna.....	Gorka Lizarraga
30 Udaltzaingoa.....	Nekane Eizagirre
40 Kulturgintza.....	Maite Iribar
41 Liburutegia.....	Marian Altuna
42 Euskara.....	Maite Iribar
43 Kirolak.....	Libana Taboada
44 Gazteria.....	Maite Iribar

50	Garapen agentzia	Josune Mujika
51	Lanbide hastapena	Idoia Beloki
52	Hezkuntza	Josune Mujika
60	Hirigintza.....	Nora Erdozia
61	Ingurumena.....	Ibon Goikoetxea
62	Nekazaritza	Ibon Goikoetxea
70	Zerbitzuak eta obrak	Imanol Etxeberria
80	Gizartekintza.....	Maria Salsamendi
81	Parekidetasuna eta Aniztasuna	Ainara Diaz
90	Langilegoa.....	Olatz De Miguel

17. artikulua.- Fiskalizaziorako berezitasunak

1.- Ez dira alde zuzeneko aurretiko fiskalizazioaren mende egongo hornidura txikiei eta kontratu txikien gastuak, ez eta aldizkako gastuei eta segidako traktuko gainontzekoei dagozkienak, behin hasierako kontratuari edo ekintzari dagokion egintza fiskalizatu ondoren, beste eduki ekonomikoko gastu onarpena edo baimena eta gastu xedapen eta konpromisoa aurretiaz fiskalizatzea beharrezkoa izango da.

2.- Aurreko puntuan jasotako kasuetan, alde zuzeneko aurretiko fiskalizazioa honako gai hauek bakarrik egiaztatuko ditu:

a) Aurrekontu-krediturik ba ote dagoen, eta proposatutakoa egokia ote den gastuaren izaerarako. Era berean, urte anitzeko gastu konpromisoak hartzekotan, egiaztatuko da 21/2003 Foru Aruaren 22. artikuluan jasotakoa ere betetzen ote den.

b) Betebehar edo gastuak eskudun organoak eragin ote dituen

Kontuhartzaileak egin ahal izango ditu egoki iruditzen zaizkion ohar osagarri guztiak, eta horiek ez dute etengo, inola ere, dagozkion espedienteen tramitazioa.

3.- Kontu Orokorraren onarpena dela-eta, organo kontu-hartzaileak osoko bilkurari aurkeztuko dio toki entitateko lehendakariak eta osoko bilkurak eragozpenen kontra edo artikulua honen 4. apartatuaren arabera kontrol organoak egindako txostenen aurka emandako ebazpen guztien urteko txostena, bai eta diru sarreraren arloan hautemandako anomalia nagusien laburpen bat ere. Txosten hori eginkizun kontu-hartzailearen ariketari lotutako alderdi eta zereginen buruzkoa izango da bakarrik, eta ez da baloratuko bertan fiskalizatzen diren jarduketak egokiak edo komenigarriak diren. Toki entitateko lehendakariak bere jarduketaren txosten frogagarria aurkeztu ahal izango duosoko bilkuran

4.- Behin kontu orokorra dela-eta toki entitateko osoko bilkura informatuta, organo kontu-hartzaileak urtero bidaliko dizkio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurreko 6. apartatuan aipatutako ebazpen eta erabaki guztiak eta, hala badagokio, ebazpenaren txosten frogagarriak.

5.- Aurreko 3. apartatuan aipatutako urteko txostenean, argi eta zehatz bereizi beharko da organo kontu-hartzaileen eragozpenen artean zeintzuk diren etenarazleak eta zeintzuk ez.

- 6.- Eskubide eta sarreren aurretzako fiskalizazioari dagokionez sarreren aurretzako fiskalizazioa egin beharrean, kontabilitatean haren berri hartzeko kontrola eta ondorengo kontrola ezartzen da.